

13. ikasgaia.

DOAKO JUSTIZIA

1. Justizia jotzeko doako sartzea

1/1996 legea, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa

Eskubide subjektibo-publikoa

2. Doako laguntza juridikoa izateko onura-eskubidea

a) Irizpideak:

- Lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza, beti ere familia-unitatean hartuta (DLJLaren 3.1. art.)
- Kanpoko aztarnak (DLJLaren 4. art.)
- Beren eskubideen babesean auzitan aritzea (DLJLaren 3.4. art.)
- Uziaren defendagarritasuna (DLJLaren 15/2. art.)

b) Deklarazioa:

- Administratiboa
- Legezkoa
- Nazioartekoa

c) Edukia:

- Judizioz kanpoko laguntza
- Atxilotuaren kasua
- Ofiziozko abokatua eta prokuradorea izendatzea
- Perituen laguntza (batzuetan)
- Egintza prozesalak

d) Hedatzea: instantzia guztietan. Eskatzeko momentua

e) Iraungipena:

- Erabateko iraungipena (DLJLaren 19. art.)
- Iraungipen partziala (DLJLaren 36.3. art.)

3. Eskubidea onartzeko prozedura

a) Organoa (DLJLaren 9. eta 10. art.)

b) Eskubidea eska dezakeen pertsonak

c) Eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentuak

d) Froga (DLJLaren 4. eta 17. art.)

e) Ebazpena (DLJLaren 17. eta 18. art.)

f) Aurka egitea (DLJLaren 20. art.)

1. JUSTIZIARA JOTZEKO DOAKO SARTZEA

Ikasgai honen oinarri juridiko gisa, **Doako Laguntza Juridikoari buruzko 1/1996 Legea** izango dugu, Konstituzioaren 119. artikuluan berariaz jasotako eskubidearen edukia eta prozedura garatzen duena. Doako laguntza juridikoa defentsa gabeziaren debekua jasotzen duen Konstituzioaren 24.1. artikuluekin lotuta dago, baliabide ekonomikorik ez izateak defendatzeko aukera bertan behera utz baitezake. Era berean, egoera ekonomikoak justiziara jotzeko aukera urratzea ekar dezakeenez, berdintasun-printzipioarekin ere harremanetan dago.

Lege horren aurretik, lege prozesal bakoitzak gai horri buruzko artikulua batzuk jorratu zituen, eta, bere esparruan, doako laguntza onartzeko modua azaltzen zuen bakoitzak. Haietan, organo jurisdikzionalak arduratzen ziren doako laguntza onartzeaz; lege berriarekin, berriz, organo administratibo bat izango da arduradun. Horrek abantailak eta oztopoak dakartza: abantailarik nabariena, aurretik zegoen prozedurarekin alderatuta, azkarra izatea da; eta oztoporik nagusiena, organo administratiboek organo jurisdikzionalak baino berme gutxiago ematen digutela.

Nolanahi ere, arazo hori desagertarazteko saiakerak egin dira, eta legeak esaten du organo jurisdikzionalak organo administratibo horren jarduera kontrola dezaketela, haren ebazpena jurisdikzioaren aurrean aurkatu baitaiteke (DLJLaren 20. artikulua). Hori dela-eta, **eskubide subjektibo-publikoa** dela esaten da, prozesuan indarrean dagoena, prozesu bat egon ezean eskubide hori ere ez dagoelako.

2. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA IZATEKO ONURA ESKUBIDEA

Doako laguntza juridikoaren eskubidea lortzeko, **baldintza objektibo jakin** batzuk bete behar dira, logikoa denez. Baldintza horiek diruarekin lotuta egongo dira, edo, hobeto esanda, pertsonen egoera ekonomikoarekin lotuta.

Atal honetan, eskubide horren edukia eta beste inguruabar batzuk izango ditugu aztergai.

a) Irizpideak

Azter ditzagun orain doako laguntza juridikoa jasotzeko egoera zein den zehazten diguten irizpideak, beti ere egoera ekonomikoaren lotuta egongo direnak:

Lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza, beti ere familia-unitatean hartuta (DLJLaren 3.1. artikulua)

Irizpide horren arabera, doako laguntza juridikoa lortu nahi duen pertsonaren irabaziek ezin izango dute lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza gainditu. Kantitate hori neurtzeko, familia-unitatea hartzen da kontuan; familia horren potentzial ekonomikoa ezagutzekotan, familia horren pertsona guztien irabaziak batzen dira. Dena den, irizpide horrekin, legea malgua da, salbuespen batzuk aurreikusten ditu eta.

Legearen arabera, inskribatutako fundazioek eta erabilgarritasun publikoko elkarteek ere eskatu ahal izango dute eskubide hori. Horien kasuan, baliabide ekonomikoak neurtzeko bidea ezberdina izango da: elkarteen gaineko zerga-oinarria urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren hirukoitza baino txikiagoa izatea.

Kanpoko aztarnak (DLJLaren 4. artikulua)

Aztarna batzuek pertsonen gaitasun ekonomikoa erakuts dezakete, eta horiek kontuan hartuko dira doako laguntza juridikoaren eskubidea onesteko orduan. Dena den, legeak azpimarratzen du etxe baten jabea izateak berez ez duela diru askorik edukitzea esan nahi, baldin eta luxuzkoa ez bada.

Beren eskubideen babesean auzitan aritzea (DLJLaren 3.4 artikulua)

Auzitan eztabaidatzen den eskubidearen edo interesaren titularra izan beharko du doako laguntza juridikoaren abantaila lortzen duenak, hasiera batetik zein ondorengotza dela-eta. Horrekin, maulak saihestea lortu nahi da nolabait.

Uziaren defendagarritasuna (DLJLaren 15.2. artikulua)

Baldintza horrekin, doako laguntzaren bidez eragotzi edo saihestu nahi da prozesua irabazteko inongo aukerarik ez duten auziak finantzatzea. Horretarako, abokatuen elkargoak abokatu bat izendatuko du, behin-behinekoz, auzi horretaz ardura dadin; berak uzia azaletik aztertu beharko du lehenbizi.

Aurretiako azterketa horretatik, abokatuak uzia defendaezina dela pentsatzen badu, laguntza juridikoaren batzordeari jakinaraziko dio bere izendapena gertatu eta hurrengo sei eguneko epean (izan ere, horrela egin ezean, uzi horren defentsara behartuta geratuko da). Uziaren defendaezintasunari buruzko txostena jasotzekotan, doako laguntza juridikoaren batzordeak defendagarritasunari buruzko txosten bat eskatuko die bai abokatuen elkarteari, bai Ministerio Fiskalari; txosten hori uziaren kontrakoa izanez gero, pertsonak ez du doako laguntza juridikoaren eskubiderik izango; aldekoa bada, berriz, beste abokatu bat izendatuko zaio, epaiketan berme guztiak betetzen dituen defentsa bat jaso dezan.

b) Deklarazioa

Doako laguntza juridikoa esleitzeko unean, hiru deklarazio motarekin topa gaitzke: administratiboa, legezkoa eta nazioartekoa.

- **Administratiboari** dagokionez, deklarazio arrunta dela esan dezakegu, eta aurretik esandako guztiak horri erreferentzia egiten diola. Horri buruz, legearen 9. eta 10. artikulua mintzatzen dira, eta xedatzen dute Probintzia bakoitzaren hiriburuan doako laguntza juridikoaren batzar bana jorratu beharra dagoela. Batzar horrek aurretik aipatutako baldintzak betetzen diren aztertu eta dagokion ebazpena emango du.

- Deklarazio edo **lege-adierazpenen** bitartez, legeak ezartzen du pertsona juridiko batzuek doako laguntza juridikoa zuzenean izango dutela: Estatuak, Autonomia Erkidegoek, unibertsitateek, eta abar; horiez gain, DLJLaren 2. artikuluan agertzen diren pertsona juridikoek ere izango dute eskubide hori, adibidez, erabilgarritasun publikoko elkarte batzuek, dagokien erregistro administratiboan inskribatutako fundazioek, Gizarte Segurantzako zerbitzu erkideek eta erakunde kudeatzaileek, eta abar...
- Azkenik, **nazioarteko** deklarazioei begira, beren Estatuetan eskubide hori onartuta duten atzerriko pertsona fisiko zein juridikoei Espainian ere eskubidea onartuko zaie, baldin eta Espainia eta Estatu horren artean materia horri buruzko nazioarteko hitzarmena edo aldebiko hitzarmena badago.

c) Edukia

Doako Laguntza Juridikoaren Legearen 6. artikuluan jasota dago eskubide hori osatzen duen edukia. Honako osagaiak osatuko lukete:

- Judizioz kanpoko doako laguntza; horren bitartez, prozesua hasi aurretik alderdiak laguntza juridikoa jasoko du, eta, horrela, prozesua hobeto prestatu ahal izango du.
- Preso edo atxilotu batek abokatu izendatzen ez badu, abokatuaren doako laguntza jasoko du.
- Ofiziozko abokatu eta prokuradorea izendatzea. Prozesu batean abokatu beharrezkoa ez bada, baina alderdi batek abokatu badu eta auzitegiak komenigarri baderitzo, beste alderdiari ere ofiziozko bat izendatuko zaio batasun prozesalaren printzipioa mantentzeko asmotan.
- Zenbait egoeratan, perituen laguntza izango dugu doan. Peritu horiek administrazioarentzat lan egin dezakete edo pribatuak izan daitezke (kasu horietan, lege prozesalen arabera izendatuko dira, ez dituzte alderdiek berek aukeratuko).

- Aipatutakoaz gain, egintza prozesal batzuk dohainik eta beste batzuk merkeago izango dira: argitaratu beharreko ediktuak edo iragarkiak, edo helegite batzuk jartzeko egin behar diren gordailuak, besteak beste (DLJLaren 6.7, 6.8, 6.9 artikulua).

d) Hedatzea

Eskubidea **prozesu jakin baterako** onartzen da, eskatu den prozesurako, hain justu. Prozesua **auzialdi guztietan** hartu beharra dago; beraz, gora jotzen badugu —hau da, helegitea aurkeztuz gero—, fase horretan ere izango dugu eskubidea, eta baita betearazte fasean ere. Goiko auzialdia edo ez-ohiko helegitea beste hiriburu batean ebatzi behar izanez gero, abokatu eta prokuradore berriak izendatuko dira, eta abokatu horrek uziaren funtsa aztertuko du.

DLJLaren 8. artikulua araberak, auzi-jartzaileak demanda jarri aurretik eskatu behar du eskubidea, eta, demandatuaren kasuan, osterak, erantzuna eman aurretik. Bestela, preklusioa gertatuko da, eta, printzipioz, ez du eskubide hori eskatzeko beste aukerarik izango. Hala ere, une horren ostean ere eska daiteke eskubidea, baina denbora-tarte horretan gertatutako zerbait argudiatu beharko litzateke, esaterako, demanda jarri ostean jazotako gertaeraren batek eskubidea eskatzen duen pertsonaren egoera ekonomikoa gaiztotu egin duelako.

e) Iraungipena

Eskubide hori galtzeko une arrunta prozesuaren betearazpenarekin dator, azken finean betearazpena prozesuaren azken urratsa delako. Beraz, epai irmoa betearazi eta berehala, eskubidea desagertu egiten da; horrez gain, kontrako helegiterik onartzen ez duen ebazpena ematean ere iraungi egingo da eskubidea.

Dena den, litekeena da prozesua amaitu aurretik eskubidea iraungitzea; kasu horretan, iraungipena erabatekoa edo partziala izan daiteke:

Erabateko iraungipena (DLJLaren 19. artikulua)

Eskubidea eskatzean emandako datuak edo deklarazioak okerrak edo faltsuak izanez gero, hasiera batean onetsitako eskubidearen onarpena balio gabe gera liteke, doako laguntza juridikoaren batzarrak eskubidea indargabetu baitezake.

Kentze honekin batera, eskubidea eskatu zuenak prozesuan zehar ordaindu ez duena ordaindu beharko du. Gainera, haren jokaera iruzurtzat har dezakete, eta, hala balitz, prozesu penal bat abiarazi liteke.

Aurkako alderdiari kostuak ordaintzera kondenatuz gero, eskubide hori ere iraungitzen dela uler dezakegu, kostuak beste alderdiak ordaindu beharko baititu.

Iraungipen partziala (DLJLaren 36.3. artikulua)

Epaiak kostuei buruz ez badu ezer esaten -hau da, kostuei buruzko berriarazko kondenarik ez badago, eta eskubidearen onuradunak bere aldeko epaia lortu badu-, bere kostuak ordaindu beharko ditu, baina, gehienez, auzian lortutakoaren herena ordaintzera behartuta egongo da.

3. ESKUBIDEA ONARTZEKO PROZEDURA**a) Organoa (DLJLaren 9. eta 10. artikulua)**

Esan bezala, gai honi buruz erabakitzen duen organoa **administratiboa** izango da, **doako laguntza juridikoaren batzordea**, hain zuzen ere. Probintzietako hiriburu bakoitzean, halako organo bana dugu, bost pertsonen osatua egongo dena.

Osaketari dagokionez, fiskal batek (presidentea izango dena), abokatu eta prokuradore batek eta administrazio publikoko bi kidek osatuko dute batzordea (bakoitzaren izendapena Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamenduko 3. artikuluan dugu).

b) Eskubidea eska dezaketen pertsonak

2. artikulua aipatzen dituen egoeretan dagoen edozein pertsona fisikok edo juridikok —espainiarrak zein atzerritarrak— eska dezake laguntza juridikoaren eskubidea.

c) Eskaera eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaera aurkezteko, bi aukera daude: edo abokatuen elkartearen aurrean aurkeztea (DLJLaren 12. eta 13. artikulua), edo interesatuari dagokion epaitegiaren aurrean.

Eskaerarekin batera, hainbat agiri ezberdinak aurkeztu beharko dira, identifikazioari eta uziari buruzkoek gain, baldintza ekonomikoari buruzkoak ere izango dira.

d) Froga (DLJLaren 4. eta 17. artikulua)

Frogarik nagusia aurkeztutako dokumentuak izango badira ere, beste frogabide batzuk ere erabil daitezke, testigantza-froga edo kanpoko aztarnak, esaterako.

Frogabide horiek ofizioz egin daitezke edozein unetan, eskubidea onartu baino lehen, baina baita eskubidea onartu ostean ere (gogora dezagun dokumentu faltsuak aurkeztuz gero eskubidea balio gabe utz daitekeela).

Hala ere, lehenago esan dugun moduan, hasiera batean, abokatuak izendatzen da behin-behinean, eta abokatu horrek uziaren aurretiazko azterketa egingo du, defendagarria den ala ez jakiteko.

e) Ebazpena (DLJLaren 17. eta 18. artikulua)

Batzordeak txostena jaso zuenetik, 30 egun izango ditu eskubideari buruz erabakitzeko. Onartzekotan, onarpen hori partziala edo erabatekoa izan daiteke; ukapen-kasuetan, aldiz, hasiera batean egindako abokatuaren

izendapena balio gabe geratuko da. Dena den, 30 egun horietan ebazpenik eman ezean, erantzuna baiezkotzat hartuko da.

f) Aurka egitea (DLJLaren 20. artikulua)

Aurka-egitea administrazioaren kontra jarritako helegite baten bidez eramango da aurrera, eta, doako laguntza juridikoaren eskubidea onartzen duen erakundearen izaera administratiboa izan arren, helegite hori organo jurisdikzional batek ebatziko du, lehen esan bezala administrazioak baino berme gehiago eskaintzen dizkigu eta.

Aurka-egitea egiteko ez dugu abokatu edo prokuradorearen beharrik, eta idazkia doako laguntza juridikoaren batzordearen idazkariaren aurrean 5 eguneko epean aurkeztu beharko da. Epaileak errekurriezina den autoaren bidez erabakiko du aurka egite hori, alderdiei, Estatuko Abokatuari eta Ministerio Fiskalari entzun eta frogak egin ondoren.